

IRITZIA
Jon Garate

ERREPORTAIA
Txusko Moto
Elkartea sortu da
Elgoibarren

BARRREN

1998ko urtarrilaren 16a
VI. urtea - 221.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

UDALETXETIK

Azken pintadak garbitzeko bi milioi gastatuko ditu Udalak

BERBETAN

Tomás Del Olmo,
Arantxa Sanchez
Vicarioren preparatzaile fisikoa

OPERA

Iziar euskal opera
San Anton jaietan



**Txusko Moto-Klub
Elgoibarko
motorzaleen elkartea**

“Asteko tentsioa eta estresa askatzen dituzu motorrean” Tomas Iriondo, motorzalea



ZURICH aseguruak

LOKAL BERRIAREN INAUGURAZIOA

ZURICH aseguruetxeak bezero guztioi jakinarazi nahi dizue Artekaleko eta Errosarioko egoitzak utzi ditugula eta aurrerantzean Deba kaleko 2. zenbakiko egoitza berrian izango gara.

Era berean, inmobiliaria zerbitzua martxan jarri dugula aditzera eman nahi dizuegu, BASURCO INMOBILIARIA.

GURE EGOITZA BERRIA GAUR, HILAK 16, ARRATSALDEKO 6,30etan INAUGURATUKO DUGU. Lerro hauen bidez bezero zaretan guztioi inaugurazio ekitaldira etortzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu.

*Pedro Basurco
Amaia Paqoaga*

GURE EGOITZA BERRIA
Deba kalea, 2 behea
Tel: 74 80 13
Faxa: 74 81 35
ELGOIBAR



Estazio taberna - jatetxea

San Inazio, 9 Tel: 74 45 34

SAN ANTON EGUNEKO
MENU BEREZIA

Arrain zopa

*

Rapea labean

*

Idi txuleta

*

Etxean egindako gozoak

*

Errioxako ardo beltza
edo gorria

3.800 pta.





JON GARATE

Abenduaren 28ko inuxentea

Berandu samar banabil ere, urte berri on deizula, irakurle. 97ko azken hondarretan gertatu zitzaidan anekdota xeblebre bat kontatzera natorkizu, ea irribarre batek alaitzen dizun egun gogor hauen ilunabarra.

1997ko abenduaren 28a zen, aurreko egunetatik nire baitan nerabilen asmoa burutzeko eguna. Euskal Herriko Gazte Orkestaren emanaldi bat entzun nahi nuen, bertako musikari bat, etorkizun handikoa bera, gertuko baizit, eta horrez gain musika klasikoa atsegin dudalako. Honelaxe jakinarazi nion nire lagun 'Txenf' i, eta bera ere kontzertura joateko prest agertu zenez, egitamua gertatu nuen: abenduaren 28an Iruñeara arratseko zortzi eta erdietarako. 'Txenf' en aita, lehengusu 'K', 'Txenf' bera eta lauok abiatu ginen Renault Laguna batean zitzu bizian, iluntasunean murgildurik. Amen batean Iruñeako kaleetan aurkitzen ginen. Eskerrak garaiz genbiltzan, izan ere, buruhauste franko izan genuen Gaiarre antzokia lekutzen lehenbizi, eta kotxea uzten gero.

Nekeak neke, iritsi ginen antzoki atarira hiru gazteok, eta erosi genuen sarrera bana, guztira 2.000 pta. xahutuz. Denbora batera, gurekin genuen 'Txenf' en aita ere, Renaulta zezen plaza baten alboan laga ondoren. Azken honek, jendelada ezak harriturik, leihatilako andereari "Gazte Orkestra ikusteko sarrera bat" eskatu zionean jasotako erantzunak zainak eta masailak gorritu zizkigun: - ¡Pero si la Gazte Orkestra ya ha actuado a las 12 del mediodía!

Mila deabru! Ikusi bazenu, ikusi, une hartan geratu zitzaigun babalora aurpegia! Argazki bat ateratzeko moduan geunden: memelo bat eta hiru biktima errugabe, lurrera itsatsirik bezala, eta leihatilaren gibelean orduan sorgin zaharren traza hartu nion emakumea. Ez zen giro gure artean, izan ere 2.000 pta. filme ziztrin bat ikusteko sarreretan galdu baikenituen. Ezertarako gogorik

gabe, handik lehenbailehen aldegitia erabaki genuen.

Burumakur gindoazen denok, eta batez ere ni. Kontzertua 8,30ean hasten zenaren uste sendoa nuen oraindik, bezperako egunkarian hori irakurri nuela iruditzen zitzaidan, baina edonola ere banekien akatsak derrigor nire izan behar zuela.

Taberna garestiegi batean bizitzan dastaturiko mokadurik garratzena irentsi ostean ekin genien itzulerako kilometro luzeei. 'Txenf' en aitak adorea altxatu nahi zigun, esanez Kubako Gerratean gehiago galdu zela. Nik, Kubako Gerrateaz zipitzik ere jakin ez arren, gauza bat argi neukan: 1997ko Inuxentelandiako koroa eta erregetza merizimendu osoz irabaziak nituen, eta ziurraski ohorezko domina ere nirea izanzen zen.

Hamaikak ez ziren urruti Beizama deritzon Azpeitiako auzotxo apain batera iritsi ginenean. Bertako 'Elustondo' baserrian egin genuen geldialdia, 'K' hangoxea baita. 'Txenf' en ama eta arreba ere han zeuden, Elgoibarrera itzul-tzeko gertu, baina gu horren goiz agertzeaz harriturik. Laster batean, gure azalpenak amaitu orduko, barre algara handiek dardarazi zituzten jendez gainezka zegoen basetxeko hormak. Afaltzera geratzeko gonbidapen abegikorrek kostata ukatu ostean heldu genion berriz Elgoibarko bidari. Behin etxean, egin nuen lehendabiziko gauza egunkaria arakatzea izan zen: "La EGO actuará el día 28 en el teatro Gaiarre de Pamplona, a las 12 del mediodía". Ez nintzen ikusita-koaz sobera harritu, baina burua maldizioz bete zitzaidan.

Hurrengo egunean, BARRENeke atal honetan idazteko aukera eman zidatenean, ez nuen zalantzarik izan. Gertaera bitxi hau izkribatuko nuen, 'Txenf' en sendi osoari eta baita berari ere, nirekin izandako jarrera eta begirunea bihotzez eskertzeko.

Atal hau ez da BARRENeke editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.



Bukatu da, bukatu da, bukatu





Nafarroa
enparantza, 2
20870
ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA Andres Alberdi,
Rosa Agirregabiria

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone
Osoro

PUBLIZITATEA Miren Moreno

MAKETATZAILEA Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin
M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegia,
Jon Garate, Amaia Gorostiza,
Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti,
KOKOE,
Imanol Larrañaga, Ongarri Zine Kluba,
Pello Rubio, Julian Segundo,
Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi,
Iban Urizar.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol
Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlearitzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



Eskerrik asko Ego-Toki Elkartearen izenean

Ego-Toki Elkarteko Mugerza Krose-eko antolatzaileek, eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiegu aurtengo krosa egiten lagundu diguten guztiei, batez ere, Elgoibarko Udalari, publizitatearen bidez lagundu dutenei, BARREN astekariari, herriko denda eta lantegiei, zirkuituan lan egin dutenei eta, orokorrean, Elgoibarko herri osoari.

Ego-Tokiko Mugerza Kroseko antolatzaileak

Ikastolako lantaldea

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Eskerrak ikastolako guztien partez

Elgoibarko ikastolak Gabonzahar feriako txosna zela-eta emandako laguntzarengatik eskerrik beroenak eman nahi dizkie Udalari, DEBEMEN Elkarteari, harakinei, muntaian lagundu zutenei eta barra barruan zein kanpoan parte hartu zuten guztiei. Era berean, norbaitek hutsegini diogula sentitzen badu bar-kamena eskatzen diogu.



Nafarroa enparantza, 2
ELGOIBAR

MATRIKULA ZABALIK! ANIMA ZAITEZ!

- **Matrikula epea:** otsailaren 6ra arte.
- **Maila guztiak.** LANGABETU ETA IKASLEENTZAKO

KEXAK

◆ Emakume batek kexa hau azaldu nahi du: “Guass dantzalekuaren atzeko aldeak, larrialdietarako irteera dagoen lekuak, zabortegia dirudi. Zakar, zikin-keria, paper eta basoz beteta dago inguru guztia. Laster arratoiak ere agertuko dira garbitzen ez badute”.




TXALOAK

◆ Futbol zaletu batek Haundi eta Zallaren arteko abenduko 31ko finalen baloiak jasotzen ibili zen **Jose Mari Urkidi Lasa txalotu** nahi du. “Txaltoa berandu badator ere, elgoibartar honen jarrera txalogarria iruditzen zait. Egun hartan ez zegoen mutikorik baloiak jasotzen ibiltzeko eta bera, nahiz eta euri galanta egin, hantxe egon zen partidu osoan porteria atzean kanpora

joaten ziren baloi guztiak jasotzen”.

◆ Herritar bat etorri zai-gu Udala txalotu nahi duela esateko. “**Txankakuako zubia argiztatu berri dute. Benetan polita** laga dute inguru. Bertatik ibiltzen garenontzat argi gehiago jartzea mesedegarria izateaz gain, estetikoki zubiak asko irabazi du. Errepide Nazionaletik zubiaren ikuspegia oso ederra da”.

B AI, E S A N ?



Juan Luis Astigarraga

Txankakua

Urtarrileko beherapenak begiz jotako hori merkeago eskuratze-ko aukera ezinhobeia izaten da. Oraingoan **Txankakua Merkataritako kidea den Juan Luis Astigarraga** hiruzpalau galdera egin dizkiogu beherapenen inguruan.

- **Beharpenetan kontsumitzailea izaten da irabazle nagusia. Dendaria ere bai?** - Dendarientzat soberako generoa saltzeko aproposak izaten dira beherapenak, merkeago salduta, noski. Kontsumitzailea irabazten iriteten da eta saltzaileak stock-a gutxitzen du. Baina kontuan eduki behar da beherapenetan ez direla egoten taila eta modelo guztiak.

- **Kontsumitzaileak eskubide batzuk ditu dendariak beherapenetan ere errespetatu egin behar dituenak. Ba al du obligaziorik?**

- Kontsumitzailearen eskubideak hauek dira: denboraldiko generoa izan dadila eskatzea; prezio zaharra eta berria, biak agertzea; generoa egoera onean egotea; ordainketak egiteko txartela erabili ahal izatea; ordaintzerakoan tiketa eskatzea eta generoa aldatzeko aukera izatea. Baina obligazioak ere baditu: ordaintzeko orduan hartutako tiketa aurkeztea erositako generoa aldatu nahi badu eta generoa egoera onean bueltatzea.

- **San Antonetan jendeak alde egiten du beherapenetan erostera.** - Jaia denez jendea eguna pasatzera iriteten da eta gainera, garai hau erosketak egiteko aproposa da. Herriko dendarietatik oso zaila da joera honekin amaitzea, egun horretan Elgoibarren komertzioa itxita dagoelako eta herrian ez dagoelako jai giro handirik. Guk, gure esku dagoena egiten dugu erosketak ahalik eta modu eroso eta egokienean egin ditzaten. Erraztasun handiak ematen ditugu, adibidez, larunbat arratsaldeetan zabalduz.

- **Elgoibarren denda bakoitzak nahi duenean hasten ditu beherapenak. Ez da hobe denak batera hastea?** - Beherapenen hasiera legez dago arautua. Honen arabera urtarrilaren 7tik aurrera hasi behar dira, hau da, data honetatik aurrera bakoitzak egoki datorkionean hasteko askatasuna du. Txankakuakoek bat egiteko asmoa izan dugu, baina ezinezkoa izan da, merkatal zentro handiek markatzen baitute hasiera eguna egiten duten propaganda handiarekin.



ESKERTZA

1997ko abenduaren 19an, 87 urte zituela hil zen ROBERTO ZUBIAURRE ZABALAren sendiak bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Motorzaleen elkarteak *martxan*

Txusko Moto-Klub taldea sortu dute Elgoibarko motorzaleek. Momentuz 35 bazkide ditu elkarteak eta aurrera begira, kopurua ugartzea da kideen nahia. Izan ere, gure herrian makina bat motorzale ago eta horiek guztiak elkartu eta hainbat ekintza aurrera eramatea litzateke taldearen helburuetateak beste, Trinitate jaletarako Enduro motor txapelketa antolatzeko asmoa daukate. Aste honetan, motorzaleak ekarri ditugu gure artera, euren afizioa ezagutzeko intentzioarekin.

Aspalditik zetorren motorzaleen elkarteak sortzeko nahia. Hala ere, arrazoi desberdinak tarteko, gaur arte ez da gauzatu ideia. Elgoibarren zaletasun handia dago eta horrek eraginda, beharrezkoa ikusten zen guztiak elkartzeko taldea sortu eta zenbait gauza denen artean erabakitzea. Izan ere, esate baterako, Euskadiko Enduro Txapelketan, Gipuzkoako ordezkari guztiak elgoibartarrak dira eta elgoibartar bat da, hain zuzen, txapeldunordea: Ion Leiaristi.

Taldearen helburua lizentziak negoziatzeko, frogak edo irteerak antolatzeko erraztasunak izatea da. Hori alde batetik. Bestetik, Tomás Iriondo, elkarte-ko lehendakariak esan duenez, “motorzaleek gizar-teari zerbitzua eskaintzen dioten neurrian, egokia ikusten genuen elkarteak eratzea, estatuto batzuk idaztea eta Eusko Jaurlaritzaren Kirol Ekintzen Lizentzian eta Motoziklismoa Euskal Federazioan alta ematea. Guzti honen bidez, Elgoibarren motoziklismoa bul-tzatuko genuke eta gizar-tearen ongiza-

teari eskaintzen diogun laguntza formalizatuko genuke, besteak beste, babes zibila”. Izan ere, Elgoibarko motorzaleek suteetan edo norbait desagertu izan denean euren zerbitzua eta laguntza eskaini izan dute.

Mutikoen Ilusioa

Ume askok txikiak direnetik egiten dute amets motorrekin. Batez ere, mutikoek, ilusioz espero dute motorra izango duten eguna. Gertatzen dena da, sarri mutiko hauek ez dutela jakiten non, nola eta norekin ibili motorrean. Gainera, gurasoak beldur izaten dira, motorra arriskutsua bezala ikusten baitute.

Tomás Iriondo, Ion Leiaristi eta Xabi Aranberri motorzaleak dira. Bakoitza bere aldetik hasi zen, hirurek izan dute gustuko motorra txikitatik. Ionek esan digunez, “ni hasi nintzen garaian, Elgoibarren ez zen beste inor ibiltzen motorrean. Baziren ibilitakoak, baina guztiak utzita zuten”. Xabiren hitzetan, “gazte hasten zara normalean baina kontuan izan behar da

ez dela batere merkea eta baliabide ekonomikoak izan behar dituzu motorra erosteko”. Are gehiago, konpetizioetan ibiltzen denak, “bi urtean behin aldatu behar izaten du motorra”, azaldu digu Ionek. Ion Leiaristi mekanikoa da lanbidez, eta berak esan digunez, “nahi eta nahi ez, motorra duenak askoz gehiago daki mekanikaz autoa bakarrik duenak baino. Beste

“Gurasoek motorra garriskutsua dela uste dute baina mendiko motorrak ez du apenas arriskurik. Nola ibili jakitea da kontua, eta ahal bada bakarrik ez joatea”.

gauza batzuen artean, motorra mimatu egin behar delako. Gaietan egon behar zara etengabean asko sufritzen baitu eta mantenua zure esku egotea

askoz ere merkeagoa da”.

Bakoitza bere kontura hasi bazen ere, urteak pasa ahala elkar ezagutu eta batera ateratzen hasi ziren. Poliki-poliki, elgoibartar motorzale gehienak talde bakarra osatzera iritsi ziren. “Batzuk errepidean ibiltzen hasten dira baina, batez ere arriskua handia delako, errepidea laga eta mendiko motorrera aldatzen dira”. Izan ere, Txusko Moto-Klubeko kide gehienak mendiko motorrean ibiltzen dira. Horregatik, garrantzitsua da non eta nola ibili jakitea, “ez da komeni bakarrik, edozein tokira joan eta ia ezer jakin gabe hastea. Hobe da dakiten pertsonekin joatea. Taldearen helburuetariko bat hori da hain zuzen ere, hasten ari diren gazteei lehen pausoak nola eman erakustea”.

Irteerak astero

Motorzaleek astero egiten dituzte irteerak, “batzuk larunbat arratsaldeetan eta beste batzuk igande goizeetan elkartu eta inguruetako tokietara joan ohi gara motorrarekin”. Esan digutenez, “oinezkoak ibiltzen ez diren parajeak aukeratzen saiatzen gara eta ingurugiroa ahalik eta gehien zaintzen, olioak biodegradableak dira, zarata ere gero eta gutxiago ateratzen dute... Gainera, motorrari esker, beste garraioen bidez iristen ez zaren parajeak ezagutzeko aukera daukazu”. Oso garrantzitsua da mendia ezagutzea, “behar-beharrezkoa da, funtsezkoa”, adierazi digu Tomasek. “Mendia ezagutu behar

“Trinitate jaietarako Enduro txapelketa antolatu nahi genuke Elgoibarren”


da, egun batean ezer ez dagoen bide batetik pasatu arren, hurrengo egunean eroritako enborra aurki dezakezulako, euriak eraginda lokatza egon daiteke, potzuak... Mendia bizirik dago, egunez egun aldatzen den zerbait da eta motorrean disfrutatzeke, mendia ezagutu eta gozatzen ikasi behar da”.

Tentsloak askatu

Motorrak askatasun sentsazio izugarria ematen du, “asteko tentsio eta estresa askatzeko erarik onena da. Motor gainean zaudela momentu batzutan beldurra ere pasa dezakezu, adrenalina topera jartzen zaitzu, eta sentsaio berezia da”, esan digu Tomasek. Errepidean motorrak orduko 300 km.ko abiadura har dezake, “eta arriskua ere nahiko handia izan daiteke, batez ere kontuan izanik istripuren bat izanez gero,

“Asteko tentsio eta estresa askatzen dituzu motorrean pare bat ordu ibili eta gero”

ondorioak oso latzak izan daitezkeela”. Mendian, halere, ez omen dago horrenbeste arriskurik, “batetik, abiadura ez delako inondik inora hain altua. Bestetik, erori arren, asko jota zerbait puska dezakezulako. Baina ongi kontrolatzen baduzu motorra, ez dago zertan erorketa arrisksurik egon behar”. Xabik gaineratu duenez, “errepidean ez dago zure esku bakarrik istripua gertatzea edo ez. Motorrez gain autoak ere dabilta eta arriskua handiagoa da. Mendian, aldiz, zuk kontrolatzen duzu motorra eta zure esku dago gehiena”.



GAZTEAK ANIMATU

Motoziklismoak, “beste edozein kirolek bezala, esfortzu fisiko handia eskatzen du. Nekosoa da eta goiz osoa motorra hartu eta mendian ibili eta gero, lehertuta itzultzen zara etxera”. Are gehiago, fisikoki ezezik mentalki ere kontrol handia eskatzen du motorrak, “motor gainean zaude eta zer ari zaren egiten jakin eta kontzentratu egin behar zara. Burua hotz izan behar duzu”. Baina, “nor bere burua gainditu eta egunez egun gauzak ikasten eta hobetzen ari zarelara ikusteak, asko betetzen zaitu. Gaur igotzerik izan ez duzun aldapa bihar igoko duzula sinisteak. Konpentsazioa erabatekoa da”. Ez hori bakarrik, “giroa ere oso jatorra izaten da. Beste kirol batzuetan ez bezala, motorrean gabiltzanok ohitura daukagu baten bati zerbait gertatu zaionean laguntza eskaintzeko, ezaguna izan edo ez. Giro berezia da. Urtean behin Burgosen izaten den mendiko motorren kontzentrazioa joaten gara asteburua pasatzera. Oso ambiente polita egoten da.”. Hirurak bat datoz jende gaztea motorrean ibiltzera animatzeari, “non eta nola ibili badakizu ez dago batere arriskurik. Gure taldearen helburua hain zuzen hori ere bada, hasi nahi dutenei irakastea”. Nolanahi ere, Txusko Moto-Klubarekin harremanetan jarri nahi duenak 74 01 86 zenbakira deitu edo eta San Frantziskoko Alkilerrea jo besterik ez du.



Zer begitantzzen zaizkizu horretako pintadak?



ELVIRA ORDOÑO

52 urte, etxeoandrea

Ez dago ondo, are gutxiago eliza, frontoia eta horrelako lekuetan egiten badira. Gainera, pintadak kentzeak diru mordo bat kostatzen duela entzun dut.



ALFONSO GARAY

71 urte, jubilatua

Oso gaizki. Nik ikusi ditxudaz pintadak margotu berriko lekuetan. Haiek kentzeko dana berriz pintau bihar da. Kartel batzuk ipinitxa nahikua da.



MAITE SAEZ DE ZAITEGI

46 urte, etxeoandrea

Egia da gazteek nonbaiten adierazi behar dituztela euren iritziak. Baina horretarako lekuren bat egon beharko litzateke, gero pintadak eta kartelak kendu ahal izateko.



FACET MANCEBO

64 urte, jubilatua

Oso gaizki. Gure herria zikintzen da eta askotan pintatu berri dauden lekuetan egiten dira pintadak. Pena bat da errespetu gehiago ez edukitzea.



ROSA M. GÓMEZ

27 urte, langabetua

Ez zait batere ondo iruditzen. Edozein lekutan margotzea ez dago ondo. Kartelak leku jakin batzuetan ipintzen dira eta hor egin ditzatela.



JUAN ADOLFO DOBARRO

23 urte, metalurjiko

Ez dagoela ondo uste dut. Ez du irudi onik ematen. Bakoitzak uste edo sentitzen duena adierazteko modu hobeak daudela uste dut.



ESKERTZA

1997ko abenduaren 28an, 88 urte zituela hil zen FRANCISCA SARASUA EGIAren sendiak bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

1998ko urtarrilaren 4an, 86 urte zituela hil zen INAZIO KORTABITARTE MAGUREGIren sendiak bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ISPILUARI BEGIRA



JUAN MARI

Urbanga

Edari banatzailea

- **Zein gertaerak mereziko luke topa egitea?**
- Nire negozio berria ondo ertetziak.
- **Zerk lehertarazten zaitu txanpain botila bat bezala?** - Negozian zeozer gaizki ateratziak.
- **Urteak pasa ahala, izaera ozpindu ala ardo ona bezala hobetuz doa?** - Ozpinduz.
- **Egarria asetzeko edaririk onena?** - Ura.
- **Txikiteorako edaria?** - Ardo ona.
- **Kafearen osteko kopa?** - Carlos I.a.
- **Parrandarako konbinatua?** - Gin-Tonic-a.
- **Coca-colak okela usteldu egiten omen du.**
- Nik badaezbada ez dot edaten.
- **Oparitzeko ardoa?** - 1994ko Muga.
- **Eta norekin edango zenuke afari baten bueltan?** - Nobixiak.
- **Bizitza garagardoa balitz, zer litzateke bitsa?**
- Maitasuna, biharrezkua da eta.
- **Zein mezu sartuko zenuke botila batean?**
- Oso alperra naiz idazteko, nahixoa dot telefonua.
- **Zer egiten zaizu Baileys-a bezain enpalagoso?** - Pertsona batzuk.
- **Mozkorrek egia esaten al dute beti?**
- Beti. Kontuan euki bihar da beti mozkorrek esaten dabana.
- **97ak eman dizun onena?** - Urte txarra izan da.
- **Zer eskatzen diozu, beraz, 1998ari?**
- Iazkua baino hobia izatiakin konformatzen naiz, ez da zaila.
- **Umetan zer izan nahi zenuen?** - Banatzailea.
- **Zenbat urte bizi nahi zenuke?**
- 70 inguru. Urte asko baino gehixoa nahixoa dot bizitxakuak ondo bizitzia.
- **San Antonetan bisigurik bai?**
- Ez naiz arrain zalia.



Mutua General de Seguros

Jausoro plaza, 1 behe



Delegatuak: Manuel Santos Alba eta M.

Elgoibarko delegazio-
ak urtero bezeroen
artean zozketatzen
duen telebista,
Juan Carlos Arrieta

● **Cáritasek 3,5 milioi banatu ditu familien artean**

Elgoibarko Cáritas elkar-teak 1996an batutako diru kopuruaren berri eman du. Sarrerak guztira 4.261.717 pta. izan dira eta gastuak, berriz, 3.846.218 pta. Gastuen atalean, 3.441.084 pta. herriko familien artean banatu dira. Gainontze-ko dirua kopuru txikitetan banatu da hainbat gasturi aurre egiteko (jakiak, kantziak, sendagaiak, bulego gastuak etab.). 1995ko fondotik geratu zen dirua aurtengoari batuz gero, 918.223 pta.ko fondoa dauka Cáritas-ek.

● **Lagun Taldearen Gabonetako zozketa**

Elgoibarko Txirindularien Lagun Taldeak egindako Gabonetako otarraren bigarren sariaren zenbakia ez zen saldu. Hori dela eta, bigarren saria Erregeetako Loteriaren lehenengo sariaren zenbakiarekin bat datorrenari emate erabaki dute antolatzaileek. Loteriaren 2. eta 3. sarien zenbakiak erretserbakoak izango dira.

● **Institutuko ikasleen zenbakia Gabonetako loterian saritua**

Institutuko ikasleek Gazte-bidaiarako saldu zuten Gabonetako loteriaren zenbakia saritua atera da. Hori dela eta, zenbakia duten guztiek urtarrilaren 12, 16, 23, eta 26an; otsailaren 2, 6, 9, 13, 20 eta 27an eta martxoaren 2, 6, 9, 13, 16 eta 20an Kultur Etxeko bilera gelan azaldu behar dute dirua jasotzeko, arratsaldeko 5:30etatik

Herriko eraikuntzetan egindako pintadak kentzeko 2 milioi gastatuko dira

Azken lau urteotan 40 milioi inguru gastatu dira

Joan den urtarrilaren 4an herriaren erdi aldeko hainbat eraikuntza pintadaz josita agertu ziren, besteak beste, San Bartolome parrokia eraberritua eta iazko ekainean inauguratuzena, Udaletxea eta frontoia. Pintadetan, “Gora ETA (m)”, “Gora HB”, “Aberria edo hil” eta antzekoak irakur zitezkeen. Guillermo Garate alkateak HB salatu du, “herritarren aurkako zaplastekoen aurrean isilik geratzen delako. Izan ere, horrelako ekintzek herritar guztiengan eragiten dute, azken finean guztion poltsikotik ordaindu behar izaten ditugulako pintaden garbiketak”.

Garatek “Erregeen oparia” deitu die herriko bazter desberdinetan agertu diren azken pintadei. Dagoeneko hasi dira horietako batzuk kentzen eta ghe-



nak desagertu dira herriko hormetatik. Azken pintadak garbitzeak 2 milioi pezetako gastua suposatuko du herritarrentzat. Guillermo Garate alkateak jakinarazi duenez, “pintadak kentzeko 1997an izan genuen aurrekontua 13 milioira igoko da ekintza honen ondorioz”. Azken lau urteotan 40 milioi gastatu dira kartel eta pintaden garbiketetan, 3.500 pezeta biztanle bakoitzeko.

Udaletxeko itokinak konpontzen hasi dira

Arkupeetako lokalean ezinduentzako-bulegoa egingo da

Elgoibarko Udaletxearen kontserbazio Egoera nahiko kaxkarra dela ez da gauza berria. Euria egiten duenean teilatuak itokin ugari dituela oso nabaria izaten da, areto nagusian, batez ere. Horrela bada, Udalak 2,3 milioi pta. gastatuko ditu itokinak kendu eta, bide batez, Ongizate Saileko bulegoak berregituratzeko. Ongizate Saila-

ren egitura birmoldatu egingo da konpartimentu berriak antolatuko direlarik, gizarte laguntzailearen eta herritarren arteko tratua ahalik eta intimoena izan dadin.

Teilatuari dagokionean, teila berriak jartzeko prozesua martxan dago, areto nagusiko itokinen arazoa behin-betiko konpontzeko asmoarekin.



Ezinduentzako harrera bulegoa

Era berean, Udaletxeko arkupeetan, eskumaan hutsik dagoen lokala egokitu egingo da eta ezinduentzako harrera-bulegoa jarriko dute bertan.

Berritze lan hauek, dagoeneko egiten ari diren beste batzuekin batera, Udaletxe osoa konpontzeko lehen urratsa izatea espero du Guillermo Garate alkateak.



Mikel Markezekin Kantu-kantari

AEKren ekimenez euskal abesti herrikoien ikastaroa egin da aste honetan, Mikel Markez irakasle izan delarik. Guztira 50 lagunek hartu dute parte, nahiz eta AEKkoek esan digutenez, "ikastarokideen kopurua mugatu egin behar izan dugun Markezek eskatuta, klaseak ganoraz eman ahal izateko". Saio bakoitzaren hasieran Mikel Markezek abestien letrak banatu ondoren, abestien nondik-norakoak azaltzen zituen: letra nork egin den, zein abeslarik kantatu izan duten abesti hori, lehengo eta oraingo abeslarien bizitza (Argoitia anaiak, Kontrapunto, Pantxoa eta Peio, etab). Bideo emankizunak ere izan dira baina garrantzitsuena abestea izan da. Mikel Markezen kitarrak lagunduta, 25 abesti ezberdin ikasi dituzte: Izarren Hautsa, Euskal Herrian euskaraz, Behin batean Loiolan, etab. Ikastaroak izan duen arrakasta ikusita, datorren urterako agian berri antolatuko dute.

Luis Condek Kutxaren Ikasketak Amaierako Saria jaso du

Kutxa Fundazioak Ikasketak amaitu berri dituzten ikasle onenei sariak ematen dizkie urtero. Hauetariko bat Luis Conde Decimavilla elgoibartarrarentzat izan da, Eibarko Unibertsitate Laboralean Injinerutza Tekniko Elektronikoko promozioiko lehen ikaslea izan delako. Argazkiak saria jasotzeko unea agertzen du. Donostiako Kutxa Fundazioaren egoitzan izan zen abenduaren hasieran. Saria Kutxa Fundazioko presidentea den Fernando Spagnoloren eskutik jaso zuen.



Txakakuaren Canarias-era bidaiaren zozketa

Txankakua Merkatari Elkartek Canarias-era bidaiaren zozketa egin du. Urtarrilaren 9ako ONCEko zerbaki sari-tuarekin bat datorrena izan da irabazlea, 42632 zerbakia, alegia. Zerbakiaren jabeak bi lagunentzako bidaia irabazi du Canarias-era. Erretsebakio zerbakia ere atera dute irabazlea agertuko ez balitz. Erretsebakioa 81503a da.

Txileko herrialde bateko azterketa industriala egiteko izendatu dute IMH

Txileko Temuco lurraldearen garapen industrialari buruzko plana egiteko agindu dio Elgoibarko IMHri Txileko Garapen Sozialerako Korporazio Pribatuak (Corprix). Lehendabizi, ekonomikoki Txileko lurralde dinamikoak direnak aztertuko ditu IMHk ikuspegi sozio-ekonomikotik. Hurrengo lana giza-baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak zein diren zehaztea izango da. Hau guztia garapen industrial aurreratua lortzeko helburuarekin. Azterketa datorren martxoan hasiko da. IMHko hiru kidek osatuko dute lantaldea, Corprix erakundeko hiru teknikari txiletarrez lagunduta.

Hildako animaliak jasotzeko zerbitzua

Animalien lurperatze inkontrolatuak sortzen dituen ingurugiro arazoak ekiditeko, Mankomunitateak zerbitzu berria eskainiko die baserritarrei eta aurrerantzean baserriz baserri ibiliko dira hildako animaliak jasoz. Orain arte, baserritarra arduratzen zen eskabadora kontratatatu eta lurrean zulo sakona egin eta gero, animalia lurperatzeaz, baina ez zegoen inolako kontrolik eta lurra eta ura kutsatzeko arriskua zegoen. Horregatik erabaki du Deba Beheko Mankomunitateak zerbitzu berria jartzea martxan.



Pedrusko futbol taldearen zozketa

Pedrusko futbol taldeak bi otarra zozketatu zituen Gabonetan bere bazkideen artean. Sarituak Iñaki Insausti Zubiaurre eta Amaia Epelde Sanchez izan dira. Argazkian bi sarituak agertzen dira otarrak eusten Pedrusko taldeko arduradunak diren Raul Carcedo eta Ion Revertekin.

● **Sigma eta Laguneko terrenoen etorkizuna**

Bi urtez blokeatuta dago Sigmako lantegiko terrenoekin egingo denari buruzko erabakia. Gillermo Garatek Jabier Retegi Industria sailburuari jakinarazi zionez, “32.000 metro karratuko terreno horietan enpresak kokatzeko eskaera handia dago eta premiazkoa da behin-betiko erabakia hartzea”. Izan ere, Sigmako terrenoen etorkizuna, gaur egun lur horien jabeak diren Fogasa, Seguritate Soziala, Hazienda eta Eusko Jaurlaritzak hartzen duten erabakian dago, “eta bizi dugun egoera ekonomiko onak areagotu egiten du soluzioa lehenbailehen hartzearen beharra”.

Era berean, Lagun enpresa kokatzen zen lurretan enpresa txikientzat egokitzeko proiektuak aurrera jarrai dezan ahaleginetan dabil alkatetza. Izan ere, ICO-ri (Kreditu Ofizialeko Institutua) helarazi dion idatzi batean erabakia lehenbailehen har dezala eskatu dio, “ICO zenbat eta gehiago atzeratu, orduan eta zailagoa izango da Lagun-eko terrenoetan enpresa txikientzako gune bat eraikitzeako proiektua gauzatea. Proiektua hilabete batzuk barru martxan jar daiteke baina horretarako beharrezkoa da ICOREkin, lurren jabea denarekin, akordio batera iristea”. Akordioa iritsiko balitz, industria eta zerbitzu enpresa txikientzako gunea eraikiko litzateke aipaturiko tokian.

ETAREN AZKEN HILKETAREN AURKAKO protesta ixila

300 bat lagun elkartu ziren Plaza Handian

Zarautzko PPko zinegotziaren hilketa salatuzko, joan den astelehenean kontzentrazioa egin zen Plaza Handian. EUDELEk, Euskadiko Udalen Elkarrekin deituta, eguerdiko 12etan herritar mordoska hasi zen Plazara hurbiltzen. Banan banan zein taldeka, 300 bat lagun elkartu ziren Udaltzaingoa kalkuluen arabera. Udal agintariak ere han izan ziren, Gillermo Garate alkatea, Jose M. Oruesagasti alkateordea eta Isaak Loiola zinegotzia, besteak beste. Kontzentrazioa ixilean izan zen. 12etan hasi eta 10 minutu beranduago, txalo zaparrada baten ostean amaitu zen.

Horrelako kontzentrazio bat egin zen azken aldia Ermuko PPko zinegotzia hil zutenean izan zen, 97ko uztailaren 12an. Orduan ere, ixilean, ETARI hiltzen uzteko eskatu zioten hainbat herritarrek.



● **HBren ustez, OTA dirua ateratzeko modu bat baino ez da**


OTAK ez du Elgoibarren dagoen aparkaleku arazoa konponduko HBren ustez. Pello Mendizabalek prentsaurrekoan adierazi zuenez, “alde zaharreko bizilagunak kaltetuak ateratzen dira eta diskriminatuak ere bai. 300 autori eragingo dio OTAK eta San Roke eta Santa Klara bezalako auzoetara zabaltzen bada, arazoa areagotu baino ez da egingo”. HBko kidearen esanetan, Udaletik ez da “aparkalekuaren arazoari buruzko alternatibarik” proposatzen. “Gure ustez, eta lehenago ere esan dugu, Plaza Txikia eta Leku-Ederren lurrazpiko aparkalekuak egin daitezke”. Era berean, Sigmako aparkalekuak aprobetxatzearen aldekoak dira eta Alkortako lurretan ezer eraikitzen hasi aurretik “aparkalekuaren arazoa aztertzea” kome-

ni dela aipatu zuen. HBren ustez, OTA zerga berri bat baino ez da, “dirua ateratzeko modu bat”.

Bestetik, Txankakuaren jarrera ez dutela ulertzen azaldu zuen Mendizabalek. “Maiatzean Udalarik bidalitako idatzi batean OTA onartzen dute, nahiz eta OTAREN aplikazioa erarik onenean egitea eskatzen zuten. Urrian, berriz, OTAREN kontrako sinadurak batzen hasten dira, kontraesankorra da”. HBren ustez, OTAK kalteak ekarriko dizkio komertzio txikiari. “Gainera, Unyalcoren supermerkatua jartzeko proiektua dago, eta jakin dugunez, Eroski ere Sigman supermerkatua irekitzeko asmotan dabil. Horiek aparkalekua doan izaten dute, beraz, herriko dendentzat kaltea handia izan daiteke”.

BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 40. GEHIGARRIA



Joan de ostiralean San Bartolome ikastolan izan ginen gure argazki kamararekin. Bertan, DBHko ikasleak Internet bidez Ingalaterrako Litherland-eko beste ikasle batzuekin nola komunikatzen diren ikusi genuen. Izan ere, elkartruke programa bati esker,

Elgoibarko ikasle hauek 16 urte dituztenean bi aste pasako dituzte Litherland-eko lagunekin. Bien bitartean, ingeleseko klaseetan Internet sarean sartu eta "chat" programaren bidez ikasle ingelesekin komunikatzeko aukera izaten dute astero.

Tristeza

Treanean, galdetzen dio emakume batek ikuskariari:

— Aizu, jaitsi al naiteke hurrengo geltokian?
Pixka bat gogoetan egon ondoren, erantzuten dio ikuskariak:

— Nahi baduzu proba egin; baina kontuz, trena ez da geratzen eta.



Jakitunen eskutik

Irakurketa-idazketa

Sarritan, ez gurasook eta ez irakasleok, ez gara jabetzen haur batek zenbat lan egin behar duen irakurketa-idazketa menperatzeko.

Gure heldutasunetik begiratu, irakurketa-idazketa prozesu arrunta eta erraza dela uste dugu, ahaztu egin zaizkigulako pasatako nekeak.

Orokorrean ez da erraza izaten ume batentzat arrotz eta ezezaguna egiten zaizkion fonemak eta grafiak elkartuz, hitz koherente eta ulergarria osatzea. Horregatik, bost edo sei urteko haur baten azalean jarriko bagina, ikusiko genuke prozesu hau ondo bideratuta ez badago zein zaila eta aspergarria izan daitekeen.

Prozesu hau sekula ez da berdina haur guztientzat. Kontuan hartu behar dugu haur bakoitzaren heldutasuna, eta horren arabera emango ditugu lehenengo pausoak irakurketaren hurbilketarako.

Gaur egun lan asko daude idatziak metodologia desberdinei buruz. Hau dela eta, ez gara sartuko

gai horretan. Bakoitzak erabil dezala gehien gustatu eta egokiena iruditzen zaiona. Dena den, denok dakigu idazketa-irakurketa egokia lortzeko beharrezkoa dela hizkuntzaren heldutasuna. Horregatik, ahozko komunikazioak bere lekua du. Oso garrantzitsua da haurrek komunikatzeko gogoia eduki dezaten espontaneitate eta konfidantzaz komunikatzea.

Ipuin kontaketak, marrazkidun liburuak eta ikus-entzunezko beste zenbait baliabide oso aproposak dira haurren artean irakurzaletasuna pizteko. Are gehiago, haurren motibazioa gehien sortzen duena ipuina da.

Gizartean aldaketa izugarriak sortzen ari dira, batez ere komunikabideetan. Hauek ikusle pasiboak izatera eramaten gaituzte eta konturatu gabe baztertu egiten dugu aberastasun handiena ematen digun gauzarik ederrena, hau da, liburuak.

Lerro hauen bidez, haurrengan irakurtzeko grina sortaraztera animatzen zaituztet. Hemendik aurrera haur baten lagunik handiena izan dadila "liburu bat".



MARIAN ELKORU
PILAR IKASTETXEKO HAUR
HEZKUNTZAKO KOORDINATZAILEA

Zer iritzi daukazu*beherapen*.....ei buruz?



~~Beherapenak jende gehiago erakartzeko bakarrik egi-~~

JANIS VALLEJO, 9 urte




~~Gehiago erosten duzu diru gutxiago ordainduz eta~~

RAUL FERNANDEZ, 11 urte.



~~Ondo daude, baina jende gehiegi joaten da gero ezer~~

NURIA REVUELTA, 13 urte






ITSASO BAS-TARRIKA
7 urte

Galde debalde

- 1- Lotarako lagunen bat al daukazu?
- 2- Jatorduen ostean esnerik hartzen al duzu?
- 3- Zein adin da ona senar/andre-gaia izateko?
- 4- Noren argazkia gustatuko litzaizuke izatea?
- 5- Zein pelikulako protagonista izan nahi zenuke?
- 6- Zein jolas duzu gustukoen?
- 7- Nori kontatzen dizkiozu sekretuak?
- 8- Berriz jaioko bazina zer izan nahi zenuke?
- 9- Zein hitz erabiltzen duzu agurtzeko?



AITOR GONZALEZ
10 urte

- 1- Batzuetan Argi deitzen dan pelutxezko txakurra.
- 2- Afaldu eta gero, esnia Cola-Cao eta gailetekin.
- 3- Zazpi baino piskat zaharraua.
- 4- Lina Morgan-ena.
- 5- Beethoven pelikulakua.
- 6- Armiamarena.
- 7- Lagun onenari eta gurasoei.
- 8- Umia!
- 9- Agur.

- 1- Umetan bai, pelutxezko ahate bat.
- 1- Afaldu eta gero esnia Cola-Caorekin.
- 1- 16 urtetik aurrera.
- 1- Julen Guerrerorena.
- 1- "Liberad a Willy" pelikulakoa.
- 1- Video consola.
- 1- Lagunei.
- 1- Pertsona bat eta mutila oin bezela.
- 1- Agur, geroarte!

Zer da edertasuna?

OLAIA SANCHEZ 8 URTE



Loreak eta Euskal Herriko mendiak ikustea da edertasuna.

ALBA ESNAL 7 urte



Edertasuna jostailuak izatea da.

CRISTOFER NUÑEZ 9 URTE



Gure itsasoa eta ditugun txori mota guztiak entzutea da edertasuna.

ENARA GOROSTIZA 12 urte



Kaleak kutsaturik eta zikindurik egoten ez direnean dago edertasuna.

AMAIA VEGAS 7 URTE



Lagun asko bildu eta jolastea edertasuna da.


UNAI MUÑOZ 12 urte



Niretzat edertasuna Gorane Salaberria da.

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Zer da hau?



2. Zer galdetu diegu?



ERIK VIGARA
11 urte

"Loteria tokatzea, diru mordo bat irabaztea, erregalo mordo bat egi-tea eta drogak eta zigarriloak desagertzea. Baina errazagoa da loteria tokatzea bestak desagertzea baino".

ANE GALA
8 urte

"Spice Girls taldiak zela kantatzen daban asko gustatzen jata eta nahi-ko naban neska danak ezagutzia eta eurekin batera egun bat pasat-zia Eurodisney-n".



3. Lotu izen bakoitza bere hitzekin

N S B
N E A

E L R R
I R R

L I R O
R E O

A I S Z
T E S G

L S T
R O O

V D M I
R R R

B O M
R E E

R O I
B A N

ELORRIO

BERMEO

TOLOSÀ

BERSAIN

BAIONA

GRSTEIZ

AMURRIO

LIZARRA

4. Asmakizunak

— Atso zaharra
hortz bakarra
jende guztia
dakar plazara

— Bi ahizpa dira
bata nire izeba
bestea nor da?

— Bitsa sortzen du
zikina kenduz,
usain ona du,
zer den badakizu?

29 urte dituen elgoibartar hau Hezkuntza Fisikoan lizentziatu zen Gasteizen, tenis espezialitatean. 1992an Bartzelonako ziren Olinpiadetara joan eta bertan geratu zen. Eskoletan hasi zen irakasle baina gaur egun tenis eskola bat zuzentzeaz gain, Arantxa Sanchez Vicario tenislariaren preparatzaile fisikoa da. Tomás Del Olmok tenisaren aldeko apostua egin eta horretarako Kataluniara alde egin zuen, bere herria, familia, lagunak eta bizimodua lagata. Badalonan bizi da orain, bere emazte Montse eta 17 hila-beteko Noelia alabatxoarekin.

OLMOK
DEL
TOMÁS
Y
NOELIA

“Arantxa Sánchez Vicarioaren preparatzaile fisikoa naiz”

– 1992ko Bartzelonako Olinpiadetara joan eta han geratu zinen.

- Han geratu nintzen, bai. Garbi nuen tenisean zerbait egiteko, Elgoibartik eta Euskal Herritik alde egin behar nuela. Datu bat: Euskal Herrian 150 tenis pista daude eta Katalunian 1.000 inguru. Bada alderik, ez? Maleta hartu eta etxetik joan nintzen Bartzelonara, tenisaren aldeko apostua egin nuen eta ondo atera zait.

– Hasieran gauzak ez ziren errazak izango.

- Tira, nahiko zorte ona izan nuen. Iritsi nintzenez, lan bila hasi eta lau lan aukera eskaini zidaten eskoletan Hezkuntza Fisikoa irakasteko. Bi aukeratu nituen eta horretan jardun nuen.

– 1995ean burubelarri sartu zinen berriz ere tenisean.

- Bai. Roger Porta, Europa mailan dagoen tenis eskolen zuzendaririk garrantzitsuena ezagutu nuen eta bere bitartez tenis munduan sartzeko aukera ikusi nuen. Granollers herrian tenis eskola zuzentzeko aukera atera zitzaidan eta onartu egin nuen. Eskola munizipala zen, ikaslerik gabekoa, eta bi urtetan 250 ikasle izatea lortu genuen. Poliki-poliki gero eta gauza gehiagotan sartzen hasi nintzen. Konpetizio mailako 16-17 urteko mutilak hasi nintzen entrenatzen, horien artean Jose Antonio Conde, mundu mailan bikoteetan 80.a denaren anaia zegoen eta gustatu egin zitzaion nola preparatzen nituen bere anaia eta taldekoak. 1996ko neguan Javier Sanchez Vicario ekarri zidan haren preparazio fisikoa landu nezan. 1997ko erdi alde-

ra, Sergio Casalek eskola bat ireki behar zuela eta preparatzaile gisa aritzeko eskaintza egin zidan eta onartu egin nuen eta horrekin batera, tenis eskolak gestionatzeko zerbitzu enpresa bat sortu genuen, “Divertenis” izenekoa.

– Eta 1997ko azaroan Arantxa Sanchez Vicarioekin hasi zinen.

- Bai. Bere anaia Javierren bitartez izan zen. Javier gustura zegoen eta Arantxak ere nirekin hasi nahi izan zuen. Abendu osoa pasa dugu erresistentzia, indarra eta abiadura lantzen. Orain Australiako Opena jokatzen ari da eta otsailean berriz etorriko da Bartzelonara eta preparazioarekin jarraituko dugu.

– Ez al da ardura handia?

- Izugarria. Ez da berdina afizionatuak prestatzea edo Arantxa bezalako profesionalak. Arantxa Espainia mailan lehenengoa da eta bederatzigarrena mundu mailan. Ardura handia da baina, era berean, harro nago. Profesionalki horrelako profesionalekin lan egitea da gehien betetzen zaituena.

– Arrakasta izan duzu.

- Gauzak ongi ateratzea nahi baduzu, bila atera behar zara, apostua egin behar duzu eta aukerak ateratzen direnean ahalik eta gehien aprobetxatu. Niri gauzak ongi atera zaizkit eta oraindik gauza asko ditut egiteko.

– Sustraiak oraindik Elgoibarren al dituzu?

- Sustraiak ez dira sekula galtzen eta asko gogoratzen naiz Euskal Herriaz. Ahal dudan guztietan joaten naiz eta harremanak mantentzen ditut. Entrenatzen joaten naizenean, Mintxetako kamiseta eramaten dut sarri.

BESTEAK ESANA

“Tenisarengatik Bartzelonara joan zen ilusioz. Arrakasta lortu du maila profesional eta pertsonalean.” RAMON MUJIKA, laguna.





Jose Angel Romero

Jose Angelek 32 urte dauzka eta duela bi urte gutxi gorabehera Algortara joan zen bizitzera. “Gaur egun nere andria dana Algortakua da

eta oin dala bi urte hona bizitzera etortzia erabaki gendun”.

Jose Angelek magisteritza dauka egina. Berak aitortu digun bezala, “irakasle moduan baino, beste gauza askotan ein dot lan, Eusko Jaurlaritzan ere egon naiz. Gaur egun, berriez, lanik gabe nao”.

Algorta zer moduzko herria den galdetu diogu. “Herri ona” dela esan digu, “bizitzeko oso leku politxa da”. Gaztelaniaz ‘ciudad dormitorio’ esaten zaiona da, “horregatik oso leku trankila da”.

Hasieran, hara bizitzera joan zenean, jendea oso desberdina zela iruditu zitzaion. “Elgoibarko jendia eta hemengua itxuraz diferentia ikusten nitxun, hemenguak piskat ‘pijuak’ ziala iruditu zitzaidan. Baina gero, denboria pasatzen darian zu bezelakuak diala konturatzen zera, jende ona da”. Gaur egun, erabat integratua dago Algortan, “kuadrilia daukagu eta oso gustora bizi gera hemen”.

Elgoibarrera sarritan etortzen da. “Asteburu askotan juten naiz ze bestela Elgoibarko jendiakin harremana hoztu eitzen da”. Buelta bat ematia gustatzen jata, jendia ikusi, familiariakin egon etab. BARREN ere jasotzen dot Elgoibarren zer gertatzen dan jakiteko.



BILBAO EXPRESS

bidaia agentziak babestutako atala

Foruen plaza, 3
Tel: 74 39 12

Eloi Iriondo Oiarzabal (1904-1990)



- 1904ko abenduaren 1ean jaio zen Santa Ana kaleko 4an, Sanson etxean. Bost anai-arrebatatik gazteena zen.
- Lekarozen (Nafarroa) egin zituen ikasketak. Oso txikitatik gustatzen zitzaion musika. 6 urterekin hasi zen musika ikasten eta 11 urterekin organoko akonpainamentuak egiten zituen.
- Parroki abesbatzan triplea izan zen. Ahots tonu deigarria zeukan.
- Beranduago Bilbon musika ikasketak egin zituen. Bertan Márdones abeslaria ezagutu zuen, garai hartan entzuteko kantaria zena. Gizon honek kantuarekin jarraitzeko animatu zuen eta horrela, Serrano maisuaren Zarzuela konpainian sartu zen.
- 1933an Buenos Airesera joan zen eta abeslari modura kontzertu ugari eman zituen. Hortik Córdoba probintziako Cosquin hirira joan zen, atsedena hartzeko asmoz. Hainbeste gustatu zitzaion herri hau, bertan geratu zela bizitzen. Musika eta kantu irakasle lanetan aritu zen.
- 1953an Londresen hainbat emanaldi egin zituen Wigmore Hall aretoan.
- Europan zegoela aprobetxatuz Elgoibarrera etorri zen familia eta lagunak ikustera. Hila-bete egin eta gero Arjentinara itzuli zen kantuarekin eta musikarekin jarraitzeko.
- Disko bat grabatu zuen eta tartean euskal abesti herrikoiak ere badaude pianoarekin abestuta. Bitxikeria moduan esan behar da disko honetan abesteaz bat pianoa jotzen duela Eloik.
- 1990eko uztailaren 18an hil zen 86 urterekin Cosquin herrian. Hil zen egunean Eloi-iren omenezko kontzertua antolatu zuten bere ikasle ohiek.

Juanito Gorostiza



Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 20 35 15
☎ ABERIAK 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
20600 EIBAR

ITURRI Taberna

Foruen Plaza, 5 - ELGOIBAR



**7 ESKALE,
UNAI ITURRIAGA,
UNAI ELORZA,
IOSU ZABALA...**

**Soraluzen,
urtarrilak 17,
larunbata,
gaueko 11etan**



A

TIK aterata dago.

eskuman **Txarriduna jatetxearen** zauri oati eta ezkerrean gaur egun desagertuta dagoen etxe bat. Konturatuko zineten gaur egungo **Madalako zubia ez zegoela** erandik.

herriko txoko bat ageri. Urteak ez dira gertatu, eta hona hemen ikus daiteke. Madalako Karitate zaharra da arztearen Ermuaranbide-**spitala** agertzen da,

Ospitalaren ondoan baratza dago, eta haruntzago **Gaztetxea** egon zen etxearen zati bat ikusten da.

Beste erretratuan **Madalako ospitalea** ikusten da baina atzeko partetik. Erreferentzia modura atzean agertzen da **Txarridunako etxea**. Errepide nazionaletik (nahiz eta orduan errepidea egin gabe egon) aterata dagoela esan daiteke, orduan ortuak ziren terrenotatik. Argazkian oso garbi ikusten da zubirik ez zegoela gaur egun dagoen tokian.

Bi erretratu historiko hauek **Ana Mari Mugerzak** lagatakoak dira. A ze altxorrak!



“Txapela galdu doten bezela galtziak ez dit penarik ematen”



Patxi Arriola

- **Adina:** 33 urte
- **Gogokoen duzun eskopeta?** Bettinsoli
- **Zenbategatik salduko zenuke Dalo?** Ez nuke salduko, nahiz eta eskaintza oso interesgarriak euki izan ditxuten.
- **Basurderik hartu duzu?** Bat bota dot oin dala gutxi. Basurde asko dabil baina asti gitxikin nabil

- **Aurten ezin izan duzu Espainia-ko Oilagorren txapelketa irabazi. Txapelketa zaila izan al zen?** - Zaila beti izaten da baina beste bat ni baino lehen sartu zan kontrolian. Bixak zauzkagun hiru txori jota baina aurten haize zazarra zauan eta oilagor gitxi ehizatu zan.

- **Irabazlea, beraz, lehiakide gogorra zen.** - Bai, Estatuko maratoi txapelduna izandakua da, . Txapelketa munduan oin dala gitxi hasi da baina forma onian dao.

- **Bigarren geratzerakoan, babeslerik izango duzu?** - Bai, nahiko ondo kontsideratuta naukate alde horretatik. Patrozinatzaileak deitu diate eta esan diate eurentzako txapelduna ni naizela.

- **Txapelketa oso berdindua izan zelako, agian?** - Bai. Ez dot frakasua kontsideratzen. Argi dao egunen batian txapela laga ein bihar dozula. Txapelketa goizeko 8,30etan hasi zan eta ordu bixetan amaitxu. 10 minutu beranduo amaitzen badozu, penalizaziuu dakazu. Ni ordu bixak eta 8 minututan sartu nitzan kontrolian eta jueza kontroletik kanpo, ordu bixak eta 12 minututan. Justu-justu ailegau nitzan gehixegi apuratziaiatik, ia beste txoriren bat jausten zan. Laugarren bati tiro ein nion baina alde ein zaban.

- **Pozik beraz.** - Bai, ezin leike gehixo eskatu. Txapela hola galtzia po-

zik egoteko modukua da. Gainera, txapelketian ikusi naban jende pilo bat zauala ni animatzen, argazkixak nirekin ateratzeko eskatzen.... Asko pozten dau.

- **Denboraldi osoko balorazioa eginez gero...** - Ehiza txikixan sekula baino gehixo lortu dot aurten. Herriko kanpeonatotik hasi nitzan. Herrikua irabazi naban; zonakua, Gipuzkuakua eta Euskadikua ere bai. Espainiako semifinalian bigarren geratu nitzan finalera pasatzeko aukeriakin. Nere modalidadia ez dala kontutan eukitxa ondo dao. Finalian hankia sartu naban eta 14. postuan geratu nitzan. Oilagorretan, berriz, txapeldunordia izan naiz hiru urtetan segidan txapelduna izan eta gero.

- **Palmares handia edukiko duzu.** - 1988an Gipuzkoako txapelduna ehiza txikixan. 1991n eta 1993an Gipuzkuako eta Euskadiko txapelduna Oilagorretan. 1994an Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelduna oilagorretan. 1995ean titulu hoiek gehi Gipuzkoako eta Euskadiko ehiza txikiko txapelak, eta Espainiako semifinalian egotia lortu naban. 1996an ehiza txikixan Espainiako hirugarrena eta oilagorretan berriz Espainiako txapelduna.

- **Datorren denboraldia heldu bitartean zer?** - Urrirate ez da hasten kompetiziuu. Bitxartian granjako galeperrekin eta txakur gaztiekin ibiliko naiz lanian.

KIROL ALBISTEAK

● **Mugerza krosetako errifaren zozketa**

Mugerza krosa dela eta saldutako errifako zenbaki irabazlea, hilaren 9an, ONCEk egin zuen zozketako zenbaki sari-tuaren azken lau zenbakiekin bat datorrena da: 2632. Tenerifera bidaia zen saria eta irabazlea Ego-Tokiko kideekin harremanetan jar daiteke.

● **Kiroldegiko frontoia obretan**

Olaizaga Kiroldegiko frontoian konpontze lanak hasi dituzte. Dagoeneko frontoiko eta rokodromoko hormak margotu dituzte eta datozen egunotan zolu sintetikoak jartzeari ekingo diote. Berritze lanak hilaren 26ra arte luzatuko dira. Ordua arte Kiroldegiko frontoiko partidua Azkoitiko kiroldegian jokatuko dira.

ESKOLARTEKO KIROLAK

EMAITZAK (Urtarrilak 10, 7. jardunaldia)

ARETO FUTBOLA

- **Benjamin mutilak** ■
Pilar Bulls 0 - Mendaro A 10
Pilar Lakasitos 1 - Ikas Tximista 0
Herri Otsoak 2 - Ikas Gorri 1
Ikas Bulls 5 - Ikas Bihurri 0

- **Benjamin neskek** ■
Pilar Txiki 0 - Ikas Ortzadar 4
Ikas Baleak 0 - Pilar Usoak 2
Ikas Hartz 0 - Ikas Bizkor 2

SASKIBALOA

- **Alebin mutilak** ■
Ikas Gol 30 - Herri Boomerang 13
Pilar Flash 6 - Ikas Inpernu 24
Mendaro B 8 - Ikas Espabidubi 20

■ **Alebin neskek** ■

- Pilar Girls 34 - Herri Argi 2
Ikas Planet 2 - Ikas Txingor 16
Ikas Laino 12 - Ikas Trumoi 6

ESKUBALOA

- **Infantil mutilak** ■
Pilar Ajax 11 - Ikas Axelko 22
Ikas Bolilla 11 - Pilar Boys 14
Ikas Otsoko 25 - Perraubekoak 6

■ **Infantil neskek** ■

- Ikas Spanky 3 - Ikas Gorribeltz 23
Blablatarrak 13 - Ikas Trons 13

Julen Merino izan zen Mintxetako krosean podiumera igo zen elgoibartar bakarra

Joan den domeka goizean II. Mintxeta Sariko krosa izan zen Mintxetako kirol gunean eskolarteko kirolen barruan. Gipuzkoako 20 bat ikastetxe eta kirol taldeetako 210 neska-mutilek hartu zuten parte, alebin, infantil eta kadete mailatan. Mintxeta Sariaren Krosaren bigarren edizioa Mintxeta Atletismo Taldeak antolatu zuen Udal Kirol Patronatuaren laguntzaz.

Erregularren guzkia goiz osoan izan bazen ere, haize galanta egin zuen domeka goizean. Hori dela eta, ez ziren marka oso onak lortu lasterketa ezberdinetan. Podiumera igo zen elgoibartar bakarra alebin mutiletako lasterketan korritu zuen Julen Merino izan zen. Merino hirugarren postuan sailkatu zen lehengoarengandik 11 segundora. Azken aldian Julen Merino gaztetxoa oso ondo ari da parte

hartzen duen lasterketa guztietan. Abenduan izandako Donostiako krosean, esaterako, lehenengoa geratu zen. Alebin nesketan, berriz, Dorleta Aranberri laugarren postuan sailkatu zen eta postu bera egin zuen Ana Etxanizek infantil nesketan. Mintxeta Atletismo Taldeak 30 bat neska-mutilek hartu zuten parte Mintxeta Sariko II. edizioan. Taldeka, alebin neska eta mutiletan eta infantil nesketan, Mintxeta Atletismo Taldea hirugarrena geratu zen.

Haizeak ezbehar txiki bat sortu zuen sari banaketa hastera zihoan unean. Antolatzaileek zelaiko bankilo batean sari guztiak ilara-ilaran zeuzkaten jarrita. Haize bolada handi batek bankilora lurrera bota eta sariak lurtean zehar sakabanatuta geratu ziren, hauetariko batzuk apurtuta. Puskatutako sariak tokatu zitzaizkien haurrei berria emango zitzaizela hitz eman zieten antolatzaileek.



Julen Merino, 3. a alebinetan. Argazkian, Mintxeta Atletismo Taldeko korrikalariak.

KIROL ALBISTEAK

● Gorbeara mendi irteera antolatu du Morkaikok

Datorren domekan, hilak 25, Morkaikok mendi trabesia egingo du Gorbeako natur parketik zehar. Ibilbide polita izango da baldin eta eguraldiak laguntzen badu. Irteera goizeko 8etan izango da Plaza Handitik. Izena emateko elkartetik pasatu edo 74 02 97 zenbakira deitu.

● San Anton Pilota Txapelketako finalak

Gaur, hilak 16, VII. San Anton Pilota Txapelketako finalak jokatuko dira gaueko 22:00etan Ikastolako frontoian. Jubeniletan Etxaniz eta Arrietak Dominguez eta Baez bikotearen aurka jokatuko dute. Nagusien kategorian, berriz, Galarza eta Ruiz-ek Esain eta Goñi izango dituzte aurrez aurre. Lagunak Pilota Eskolak Kirol Patronatuaren laguntzaz antolatutako txapelketa hau ETBko lehen katetik emango da diferituan.

EMAITZAK

Futbola

Burgos 0 - Haundi 0
Pedrusko 1 - Elgoibar 1 (2. erreg.)
Anaitasuna 2 - Elgoibar 1 (Eusk. L. jub.)
Elgoibar 1 - Intxaurren 1 (2. jub.)
Eibartarrak 2 - Elgoibar 7 (Kad.)
Tolosa 1 - Elgoibar 2 (Inf.)

Eskubalola

Unceta Elg. 35 - Urnieta 3 (Kad. nes.)
Pneumax Elg. 17 - Askartza Claret 21 (Kad. mut.)
Pagoaga Elg. 19 - Urnieta 9 (Jub. nes.)
Tecnomeca Elg. 28 - Askartza Claret 25 (jub. mut.)
Elgoibar 19 - Urola 27 (Seniorrak)

Idarraga Kafeak 1. saria

C.D.ko jokalariregularrena 97/98

JOKALARIA PUNTUAK

1- Miguel Díaz 29
2- Gorka Guarrotxena 22
3- Gaizka Lazarobaster 19
4- Eneko Barrenetxea 18
5- Iker Atxabal 17
6- Joseba Igartua 15
7- Ander Iruretagoiena 13
8- Koldo Agirregomezkorta 12
9- Jabier Gurrutxaga 10
10- Karlos Madina 10
11- Xabier Alonso 9
12- Jon Argoitia 9
13- Unai Aranburu 7
14- Aiert Zinkunegi 4
15- Mikel Elgoro-Irube 4
16- Aitor Trebiño 3
17- Mitxel Badiola 2
18- Igor Prieto 1

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 17

11:30 Elgoibar - Olarizu (E. L. jub.)

16:30 Elgoibar - Hamaika Bat (2. erre)

Igandea, 18

12:15 Elgoibar - S. Tomas Lizeoa (Inf.)

16:15 Elgoibar - Zarautz (Kad.)

Eskubalola, Azkoitiko kiroldegian

Igandea, 18

10:00 Pagoaga Elg. - Usurbil (Jub. nes.)

11:30 Elgoibar - Zarautz (Seniorrak)

Pilota, Ikastolako frontoian

VII. San Anton Txapelketa

Ostirala, 16

22:00 Etxaniz / Arrieta - Dominguez / Baez

(Jub.)

Galarza eta Ruiz - Esain eta Goñi

(Nagusiak)

Txankete is
alive

Azkenaldi honetan talde ezberdinak jasotzen dituzten bildumekin lehertu gaituzte, gehienek betetzen duten funtzio bakarra ezagutaraztea izaten delarik. Banaka batzuk, atentzioa jartzea merezi duen horietakoak dira, eta hortzak zorrotzen zaizkigun bitartean, adi-adi entzun behar den disko baten aurrean irribarre egiten dugu.

Chicago hirian kokatzen den taberna baten omenez atera dute bilduma hau (protesta moduan), "The Lounge AX" izeneko, hain zuzen. Taberna horretan talde askok kontzertuak egiten zituzten, eta taldeen kalitatea igotzen zihoran. Dirudenez, norbait ez zegoen ados taberna honen izaerarekin eta itxi egin behar zela erabaki zuen. Aitzakia tentel ugari erabiliz salaketak aurrera eramane zituzten. Ondorioz "The Lounge AX Defense" izeneko bilduma argitaratu zuen TOUCH AND GO zigiluak. Bertan talde ugari agertzen dira: The Jesus Lizard, Tortoise, Shellac, Superchunc eta beste batzuk. Oso bilduma interesgarria alde guztietatik... 'no nos moverán'.

Iban Urizar eta Julen II



'Iziar' euskal opera emanaldia, San Anton eguneko ekitaldi nagusia

Igandean Ertzantzaren Bandak kontzertua emango du

Bihar San Anton eguna da. Jaieguna izanik, elgoibartar askok kanpora joateko aprobetxatzen dute egun hau. Hala ere, Udalaren asmoa kontrakoak izaten da, herritarrek herrian geratzea. Horregatik, aurtengo San Anton jaietan ikuskizun berezi-berezi bat egongo da: euskal opera. Egunean zehar, buruhandi eta erraldoiez, haurrentzako parkeaz eta Filatelia Elkarteok antolatutako erakusketaz gozatzeko aukera izango da. Igandean, berriz, Ertzantzaren Bandak kontzertua emango du Herriko Antzokian eguerdiko 12:30ean.

Duela oso gutxi estreinatu berria da Sarobe Arte Eszeniko Guneak taularatu duen "Iziar" izenburuko opera lirikoa. Elgoibarren zapatuan ikus ahal izango dugun emanaldia Euskal Herri osoan eskaintzen duten bigarrena da. Opera bi aktotan dago banatuta eta Migel Oñate musikagile donostiarrak 1906an idatzitakoa da. Musika lirikoko obra hau Euskal Kamara Opera delako egitasmoa sendotzeko bidean lehen urratsa da. Helburua, formato laburreko operak euskaraz antzeztea da, Europa erdialdeko opera-estudioen antzera. Urrietako Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Europar Bartzordeak diruz lagundutako egitasmoa da.

Abeslari gutxi eta kamara orkestrerantz idatzitako opera ia ezezagun honen bitartez, bultzatzaileen helburua lan liriko berrien sorkuntzan bidea urratzea da. Maitasun istorio baten inguruan egituratzen da argumentua. Artadi eta Iranzuk ezkondu nahi badute ere, Artadiren aitak bere alaba jauntxo aberats batekin ezkondu nahi du. Irantzuk dirua lortzeko Itziarko Amabirjinaren bitxiak lapurtzea erabakitzen du. Honen aitak bitxiak ez lapurtzeko eskatuko dio semeari eta Artadirekin ezkontzeko modua topatuko



Iziar euskal operaren une bat.

du. Opera hau ikusteko sarrerak 500 pta.n daude salgai.

Filatelia erakusketa

Eguerdiko 12etan Filatelia Elkarteak San Anton jaietan egiten duen erakusketa inauguratuko da Kultur Etxean. Aurtten Haritz Dantzari Taldeak 25. urteurrena ospatzen duenez, erakusketa dantza taldeari eskaintzea erabaki dute Filatelia Elkarteok. Lehen aldiz dantza tradizionalari buruzko bilduma ikusteko aukera izango da. Bildumaren egilea Jose Mari Etxaniz elgoibatarra da.

Inagurazioaren aurretik, goizeko 11:45ean hain justu, herriko agintariak, ESEBA Euskal Herriko Filatelia Elkarte-kideak eta Elgoibarko Filatelia Elkarteok Plaza Handian elkartu eta kalejirran joango dira Kultur Etxeraino herritar, dantzari eta Udal Txistularien laguntzaz. Arratsaldeko 16:00etan ESEBA Elkarteok urteko batzar orokorra egingo dute Kultur Etxean.



Eraskun Rezola

"Londresko unibertsitate batian gaztelaniako klasiak ematen ditxut"

23 urte dituen elgoibartar honek Enpresa ikasketak egin zituen Donostiako ESTE unibertsitatean. Iaz, azken ikasturtean, aukera izan zuen Erasmus programan parte hartzeko eta lau hilabete pasa zituen Londresen. Amaitu aurretik, gaztelania klaseak emateko aukera sortu zitzaion eta ekainera arte izango da Londresen. Gabonetan hemen egon denez, berarekin izan gara berbetan.

- Londresen gaztelania irakaslea ra.

- Bai. Unibertsitatean ingel aparte bi hizkuntza daukate aukeratu eta jende asko dago gaztelani ikasten duena. Bi irakasle daude gramatika irakasten diena eta urtero, Erasmus programan bitxart Donostitik juten dianen artian ber aukeratzen dabe klase oralaz arduratzeko. Ikasturte honetarako n aukeratu ninduten.

- Zer egiten duzu?

- Nere lana gaztelania ikasten ari dian ikasle taldeei mintzamen lantzeko klasiak ematia da. Pelikulak ikusten ditxugu, gaztelaraz idatzitako liburuak eta artikulak irakurri eta komentau, abestixak entzun... Askatasun osoa dakat klasea emateko orduan. Irakasleekin hitz egiten dot teoriar zer eman daben ikustek eta gero nere erara moldatzen naiz

- Londresetik kanpo bizi zara, ez?

- Bai, Unibertsitatea Londresetik hiru ordu laurdenera da eta ikasle eta irakasle gehixenok han bizi gera. Pisuak dakagu, tabernia da, diskotekia...

- Ikasleak ingelesak al dira?

- Ez, gehixenak frantsesak eta alemanak. Jende asko juten da Inghaterrara karrera itxera. Horregatik, 18 urte-tik hasi eta 30 bitxarterako jendia da.

- Klaseak eman eta prestatzen ez zaudenean, zer egiten duzu?

- Alemana ikasten ari naiz, denboria aprobetxatzeko. Bestela, lagunekin zeozer hartzera jun... Betikua. Hori bai, astebukaera gehixenetan Londresera juten naiz ze lagunak dauzkat han. Noizian behin geratzen gera kanpusian ze batzutan jaixak eitxen dia, baina normalian Londresera juten naiz.

inerarte Londresen. Eta gero?

Ondiok ez dakitx. Lan hau ekaitte dakat, ze gero beste bati rano diobe aukeria. Egixa da Londresen lan aukeria hemen bai gehixio dauala, errezo da. Batez gaztelania jakinda eta enpresa askok Hego Amerikakin lan eitxen dabela kontuan eukitxa. Hemen esperientzia eskatzen dabe eta igual gustauko jatan han beste urtebete pasau lanian eta gero etortzia.

- Bueltatuko zarela beraz, ziur.

- Bai. Esperientzia positibua da eta asko ikasten da. Zure burua ezagutzen dozu eta beste herrixetako jendia eta horrek asko zabaltzen zaitxu. Edozeini esango nioke aukeria badaka, juteko tenporada bat atzerrira ikastera edo lanera. Baina gero bueltatzeko, hemen bezela ez da inun bitzitzen.



Aranburu

San Frantzisko, 26
Tel: 74 25 35

Aranburu bitxidendako
Errege eguneko zozketako
zenbaki sarituak:
1. saria, gizonezko erlojua:
4418 - B seriea
Erreserba: 4381 - C seriea

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal
ITT ERCOS ASEGURUAK



URKIDI

AHOLKULARITZA

Kalamua, 12
ELGOIBAR
Tel-Faxa:
74 18 91



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.YA (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

A G E N D A

17

larunbata

SAN ANTON EGUNA

11:00 MEZA NAGUSIA
 Parrokian

11:00 eta 16:30
HAURREN PARKEA
 Plaza Handian (Euria
 egingo balu Ikastolan)

12:00 XIII. FILATELIA
ERAKUSKETAREN
INAUGURAZIOA
 Kultur Etxean
 Hilaren 24ra arte ikusgai
 Antolatzailea: Filatelia
 Elkarte eta Haritz
 Dantzari Taldea

16:30 BURUHANDI
ETA ERRALDOIEN
KALEJIRA

22:30 OPERA
EMANALDIA
 Konpainia: Sarobe Arte
 Eszeniko Gunea
 Obra: "Iziar" euskal opera
 Herriko Antzokian

22:30 ROCK
KONTZERTUA
 Taldeak: "Larrua Truk"
 eta "Luther"
 Gaztetxean

18

igandea

12:30 ERTZANTZAREN
BANDAREN
KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

16:30 ZINEA
 "Solo en casa 3"

19:30-22:15 ZINEA
 "Alien Resurrección"

19

astelehena

19:30-22:15 ZINEA
 "Alien Resurrección"

20

asteartea

19:30 HITZALDIA
 Gaia: Etxeko istripuen
 detekzio eta prebentzioa
 Hizlaria: Mikel
 Lizarralde, Gurutze
 Gorriko kidea
 Jubilatu Etxean

16

ostirala

22:00 SAN ANTON
PILOTA
TXAPELKETA
 Finalak
 Ikastolako frontoian

22:15 ZINEA
 "Alien Resurrección"

ZINEA



Zuzendaria: Jean-Pierre Jeunet
Antzezleak: Sigourney Weaver,
Winona Ryder, Dominique Pinon.

Alien Resurrección

Ripley tenientea duela 200 urte hil zen. Bere gorpua giza klonazioak egiteko erabili dute zientzia gizonek. Aurreko misioan Ripley tenienteak alien arriskutsu bat hil zuen. Orain bere ADNaren alien-aren ADNarekin nahasten ari dira Auriga izeneko espaziontzian. Istripu baten ondorioz alien mordoska batek ihes egiten du eta Ripley tenienteak alienak suntsitu beharko ditu.

22 osteguna

**11:00 SAN BIXENTE
EGUNEKO MEZA**
San Rokeko ermitan

**20:30 SAN BIXENTE
EGUNEKO AFARIA**
San Rokeko lokal
sozialean
Ondoren erromeria
Gardoki eta 'Katxo'rekin

22:15 ZINE KLUBA
"Twin Town"

23 ostirala

22:15 ZINEA
"Los Angeles
Confidencial"



● **Tanborrada Pilar ikastetxean**

Datorren astean San Sebastian eguna denez, Pilar ikastetxeko ikasleek tanborrada egingo dute. Astelehenean, hilak 19, arratsaldean, tanbor-jole eta sukaldariz jantzita aterako dira ikasleak ikastetxeko patioa, tanborrada txikian parte hartzeko. Argazkian iaz egin zuten tanborradan ikus ditzakegu.

Ongarri Zine Kluba

Datorren ostegunean, hilak 22, Ongarri Zine Klubak berriz ekingo die zine klub emanaldiei Gabonetako oporren ostean. Zine klub saioak ekainaera arte izango dira etenik gabe. Denboraldi honetan elgoibartar zale-tuek guregana heltzen ez den "beste zine" horretaz gozatzeko aukera izango dute, beste gai, estilo eta zine-matografia urrunak azaltzen saiatzen garelarik.

Hasteko, Ongarrik gaur egungo komedia errealista ingelesari eskainitako ziklo txiki bat antolatu du. Azken aldian pelikula ezagun asko eman ditu: Transpotting edo Full Monty, esaterako. Hilaren 22rako Galesko K. Allen-en "Twin Town" izeneko komedia zoroa programatu dugu, Transpotting-en estilokoa. Hilaren 29an eta 30ean zinemagintza ingelesak eman duen titulurik ezagunena proiektatu dugu: M. Herman-en "Tocando el viento", ikatz mehategi baten itxierak herri ingeles txiki bateko musika banda batean izaten duen eraginari buruzkoa.

● **San Bixente eguna hilaren 22an, osteguna**

San Roke auzokoek San Bixente eguna ospatuko dute datorren ostegunean, hilak 22. Goizeko 11:00etan meza izango da auzoko ermitan. Ondoren otordu txiki bat egiteko parada izango da lokal sozialean. Iluntzeko 20:30ean lagunarteko afaria izango da auzoko lokalean eta ondoren erromeria Gardoki eta "Katxo'rekin. Afarira joan nahi dutenek bazkide-
ren batekin harremanetan jarrita eman dezakete izena.

● **Hontzertua Gaztetxean**

Bihar, larunbata, gaueko 22:30ean kontzertua egongo da Gaztetxean. Larrua Truk eta Luther taldeek joko dute eta sarrera doan izango da.

T R A N D A H

FARMAZIAK

	Egunez	Gaez
17	Yudego*	Escala
18	Yudego*	Escala
19	Bidasolo	Bidasolo
20	Ettxeberria	Ettxeberria (Santa Ana kalean)
21	Anduaga	Anduaga
22	Yudego	Yudego
23	Zabaleta	Zabaleta *(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

17 larunbata Eizagirre

18 igandea Doña Mercedes

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: K. Allen.

Antzezleak: L. Evans, R. Hans,
D. Scott.

Twin Town (Bretainia Handia-1996)

Twin Town filmea Galesko herri txiki bati buruzko komedia zoroa eta frenetikoa da. Karaokea, rugbya eta futbolaz maitemintutako herri honetan, langile batek istripua izaten du eta dagokion indemnizazioa jasotzen du bere nagusiaren bidez. Nagusia, era berean, futbol klubeko lehendakaria da. Egoera honek enpresa gizonaren semeen gorrotoa sortaraziko du eta pertsonaia xelebrez beteko dute herria. Zorakeria nagusituko da eta...

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. ☎ 74 32 94
- ◆ Eulogio Estarta elkarterako kontserjea (barrarako) behar da. Interesatuak deitu 74 00 30 zenbakira edo jarri harremanetan zuzendaritzarekin.
- ◆ Asteburu eta jaietarako emakumea behar da bokadiloak egiten esperientziarekin eta egunero taberna garbitzeko aukerarekin. ☎ 74 37 71
- ◆ 18-25 urte bitarteko neska behar da ostiral eta larunbatetan lan egiteko. ☎ 74 45 87

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko neska eskaintzen da. ☎ 74 23 90
- ◆ Modista-diseinatzaile tituluduna eskaintzen da konponketak egiteko eta erropa josi eta diseinatzeko. Esperientziarekin. ☎ 74 21 44 (Ana Isabel)
- ◆ Barne Komertzio titulua duen neska euskalduna eskaintzen da administrazio lanak egiteko. ☎ 74 43 31 (Agurtzane)
- ◆ Eskopetero-armeroa eskaintzen da rebarbatze lanak, eskopetero, limatzaile edo pulidore lanak egiteko. ☎ 17 47 70
- ◆ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ 17 47 70
- ◆ Bigarren mailako espezialista eskaintzen da igeltsero edo enkofratzaile lanak egiteko. ☎ 17 47 70

Garajeak

- ◆ Garajea salgai Urasandin (5 eta 7 zenbakien azpian). ☎ 74 13 07
- ◆ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. ☎ 74 12 04
- ◆ Garaje marraduna alokatzen da Kalamua kalean, Urasandin. ☎ 74 13 82
- ◆ Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. ☎ 74 19 70
- ◆ Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakian. ☎ 74 27 89
- ◆ Garaje marraduna saltzen dut Karakolaren azpian. Garajes Madarixa. ☎ 74 04 34
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut King-Kong-en. ☎ 76 17 95

Partikularrak

- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez. ☎ 75 50 35 (Imanol)
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen dira. ☎ 74 07 86 (Nerea)
- ◆ Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra bitartekoentzat. ☎ 74 41 16/ 907 15 30 62
- ◆ Kitarra klase partikularrak (solfeo gabe) ematen dituen norbaiten bila nabil. ☎ 74 12 05 (gauzez)
- ◆ Injineru tekniko industrialak matematika, fisika, kimika, marrazketa eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditu (gaztelaniaz). ☎ 74 22 29 (Begoña)

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Mendi trabesiako botak saltzen ditut. TR9 Nordika, 42 zenbakikoak. ☎ 75 16 80 (Gauzez)
- ◆ Hozkailu bitrina, arrain elektronikoa eta kutxa erregistratzaile txikiak salgai. ☎ 75 50 09 (gauzez)
- ◆ Taberna traspasatzen da Plaza inguruan. ☎ 74 00 16
- ◆ Merkatu Plazan lokala saltzen da. Berritua eta prezio onean. ☎ 74 25 17
- ◆ Txakur txiki bat salgai. ☎ 74 20 98 / 58 40 01
- ◆ Suzuki GSXR-1100 SS-K saltzen da. ☎ 74 37 71
- ◆ Artzai txarkukume alemaniarrek salgai. ☎ 74 35 26 (15:00etatik aurrera)
- ◆ Opel Calibra 2.0 16 V. 150 cv saltzen da. ☎ 74 22 78
- ◆ Eskiak saltzen ditut. Dymastar, 1,85 m.ko altuera. Tyrolia 490 loturekin. Nordica N995 botak, 42-43 zenbakia. Egoera onean. ☎ 74 18 55 (gauzez)
- ◆ Eskiak eta fijazioak salgai. Berririak, erabili gabe. Prezioa: 20.000 pta. ☎ 75 50 51
- ◆ Kerosenozko estufa salgai. Urtebete du. ☎ 74 09 44

◆ EROSI ◆

- ◆ Manikiak behar ditut eskapaterako. ☎ 58 09 18 (Bego)
- ◆ Hariak gordetzeko armairua, botoiak forratzeko makina eta kaja erregistradora erosiko nituzke. ☎ 58 09 18 (Bego).
- ◆ Txabola erosiko nuke Elgoibarren edo inguruan. ☎ 74 37 87

Etxebizitzak

- ◆ Pisia salgai Santa Ana kalean. 4. pisua igogailuarekin. 105 m2 eta ganbara. ☎ 74 11 05
- ◆ Etxea salgai Urasandin. 90 m2, 3 logela, sukaldea, 2 komun, ganbara eta 3 terrazatxo. Kokettoa. ☎ 75 52 15
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Berritua dago. ☎ 929 43 24 22 (Arratsaldeko 6etatik aurrera).
- ◆ Etxebizitza salgai Deban. Alameda parean, hondartzatik 50 metrora. Berritua. ☎ 908 57 95 89
- ◆ Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. Altzariekin. ☎ 74 00 65

Bestelakoak

- ◆ Solfeoko karpeta galdu dut. Koadernoetan Aritz Cerviño Gorostiza izena agertzen da. ☎ 74 12 69
- ◆ Roy Txandal markako jertsea kendu zidaten larunbatean kiroldegian konfusioz. Mesedez, hartu zuenak laga dezala Kiroldegian.
- ◆ Urtarrilaren 5ean Mercadeco, Misio Taldeak Errosario kalean jarri duen dendan, eskularru marroiak laga zituen ahaztuta norbaitek. ☎ 74 23 22
- ◆ Buztan beltza duen katu siamesa galdu nuen Pedro Muguruza inguruan. ☎ 74 17 87
- ◆ Lepoko zapi bat galdu dut (bi ahate ditu). ☎ 74 06 17 (Saritu egingo da).

Agurak

- ◆ Zorionak **Anabel Rodriguez** gaur 16 urte bete dituelako. Kuardrila osoa eta "gizon berdea"ren partez.
- ◆ Zorionak **Ubilio Ovejerori** hilaren 20an urteak beteko dituelako. Familia osoaren partez.
- ◆ Zorionak **Ander Gerenabarrenari** hilaren 14an urteak bete zituelako. Zorionak baita ere **Mikel Sastre**ri hilaren 17an urteak beteko dituelako.
- ◆ Zorionak **Saioa Cerbiñori** igandean, hilak 18, 14 urte beteko dituelako. Bere lehengusu eta familiararen partez.
- ◆ Zorionak **Olatz** eta **Mikel, Ibai** zuen artera etorri delako. Ainhoa, Danel eta Maddik.



◆ Zorionak **Aitor Santosi** hilaren 18an 22 urte beteko dituelako. Guraso eta arreba Ainhoaren partez.

◆ Berandu izan arren, zorionak **Amaia** zure bi lagun zoroen partez.



◆ Zorionak **Asier** zure 3. urtebetetzean etxekoan partez.



◆ Zorionak **Belén Cordóni** hilaren 17an 6 urte beteko dituelako. Guraso eta anaiairen partez musu haundi bat.



◆ Aupa **Danel!** Bete dituzu 7 San Anton. Zorionak etxeko guztien partez.

◆ Bihar, hilak 17, 12 urte beteko dituen **Eneritzi** zorionak ahizpa Gorane eta sendiaren partez.



◆ Zorionak **Iskanderri** abenduaren 16an 2 urte bete zituelako. Larraitz eta

gurasoen partez.

◆ Zorionak **Leireri** hilaren 19an 2 urte beteko dituelako. Aintzane eta fa-



milia osoaren partez.



◆ **Alba Esnali** zorionak hilaren 14an 8 urte bete zituelako. Nagoire, Amaia, Miriam B. eta Nerea L.ren partez. Gelako guztien



500 ale saldu dira GABONETAN,
eskuratu zeurea
bukatu aurretik.



BARRENen atera diren
100 erretratu zahar
politena **1.000** pta.



Bihar,
SAN ANTON eguna,
kalean izango gara.

Eta gainera

PITXINTXU, GOROSTIZA,
BARREN eta ELGOIBARKO IZARRAn
eros dezakezu.

BARREN
5. URTEURRENA

GREMIOAK

ARROZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 74 03 96

LUIS F. BERISTAIN

Sukaldeak - atekak - zoluak
Artetxe, 1
☎ 909 42 68 19

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 74 14 80
☎ 908 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi 59-61, beheak
☎ 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
☎ 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 75 50 62
☎ 907 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

PINTURAK

PINTURAS ELGOIBAR

FERMIN
Urasandi, 57-3
☎ 74 39 91
☎ 909 76 28 80

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 74 29 87
☎ 989 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 907 41 78 67

KIDEEK S.L.

San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

BETI ARGI

Errosario, 6
☎ 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 74 13 76

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94